

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2023ko AZAROAREN 24an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2023ko azaroaren 24an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakariitzean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Vicente Garcia Momblona
Jose Agustin Arrieta Eguiguren
Maria Isabel Vaquero Montero

Bere ezin etorria azaltzen du: Ander Iturri Torrea

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2023ko urriaren 27an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 27 de octubre de 2023.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Tolosako Hiltegi Mankomunatuari 2023 urteari dagokion ekarpena onartu eta burutzea/ Aprobación y realización de la aportación correspondiente al 2023 a Tolosako Hiltegi Mankomunatuari.**
- 5. Tximistorratzaren akatsak zuzentzeko lanak esleitzea/Adjudicación de los trabajos de subsanación de las deficiencias del pararrayos.**
- 6. Larraulgo Zabaleta parkean kokatzeko móvil home bat erosteko kontratuaren esleipena/ Adjudicación del contrato para la adquisición de un móvil home para ubicar en el parque Zabaleta de Larraul.**
- 7. Y.R. andreak eginiko euskara ikasteko diru-laguntzaren azterketa/ Estudio de la solicitud realizada por T.R. de ayuda económica para hacer un curso de euskara.**
- 8. Aiztondo klasika batzordea eta Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo udalen arteko hitzarmenaren onespina, Aiztondo Klasika txirrindularitza proba antolatzeke/Aprobación del convenio de colaboración entre Aiztondo Kasika batzordea y los ayuntamientos de Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona-Amasa y Zizurkil, para la organización de la prueba ciclista Aiztondo Klasika.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9. **Dirulaguntza eskaera egotea, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren azaroaren 14ko Aginduaren babesean. Agindu horren bidez, Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategia ezartzeko, Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integralen bidez, eta bertan aurreikusitako jarduerak burutzeko, toki-erakundeei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dira./Solicitud de subvención al amparo de la Orden de 14 de noviembre, del Consejero de Planificación Territorial, vivienda y transportes, por la que se regulan las subvenciones a entidades locales para la implantación de la Estrategia de Accesibilidad Universal a través de Planes integrales de Accesibilidad Universal y para la ejecución de actuaciones en ellos previstas).**
10. **Beste batzuk/Otros.**
11. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
 - 11.1. **EUDELen adierazpena 2023ko azaroaren 25erako, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta/ Declaración de EUDEL para el 25N, día por la eliminación de la violencia contra las mujeres 2023.**
 - 11.2. **Euskal zaintza-sistema indartsu, eraldatzaile, feminista eta komunitarioaren aldeko Mozioa/Moción en defensa de un sistema de cuidados vasco fuerte, transformador, feminista y comunitario.**

..//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2023 urteko urriaren 27an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak aho batez onesten du.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 56/2023tik 59/2023ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

PIENSOS MANTEROLA ANAIK	68,00
TELEFONICA	10,41
GURDI	22,83
KIROLZER	47,30
REPSOL	184,13



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

REPSOL	24,31
REPSOL	70,43
REPSOL	79,45
REPSOL	243,05
GILBE	222,04
GILBE	24,75
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.582,95
HOSTALIA	15,72
ZUMETA BIZITEGIA	19,38
ZU ETA BIOK	2.410,78
UDANE ALCALDE URRACA	112,50
GAZTEZULO KOOP. ELK.TXIKIA	30,00
EUROCONTROL,S.A.	175,45
VALLINA	44,80
ALKAIN	260,21
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	169,40
KEY LAN	12,42
DIONISIO ORMAZABAL	16,46
MELLIFERA	1.628,16
SECURITAS DIRECT	52,39
SECURITAS DIRECT	53,02
EBA ERKIZIA BRION	52,27
JUAN HERRARTE	1.331,00
TELEFONICA	243,69
TELEFONICA	147,32
TELEFONICA	27,83
GUREAK MARKETING	4,72
NORTEGAS	11,28
NORTEGAS	58,02
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	16,82
GABIRONDO ITURGINTZA	1.236,62
FERRETERIA GOROSTIDI	4,00
IMAZ COLOR	703,57
KIROLZER	108,43
SUMINISTROS ZELAI	30,61
EBA ERKIZIA	1.815,00
BERRI LANTEGIA	34,10
VECS, INGENIERIA, SERVICIOS, APLICACIONES	199,65
OSK	133,10

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **13.738,37** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2023 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONARTU ETA BURUTZEA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2022ko azaroaren 28an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuela, Mankomunitateko kide diren Udalek egin beharreko ekarpena, ondorioz, Larraulgo Udalarari 184,00 euroko ekarpena egitea suposatzen dio.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2023 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 184,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2023ko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 184,00 euroko gastua onestea.

BOSTGARRENGO PUNTUA

TXIMISTORRATZAREN AKATSAK ZUZENTZEKO LANAK ESLEITZEA


Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten du Tximistorratzen mantenua egin ondoren, bertan agertutako akatsak zuzentzea.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberaz Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean gaude.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.


Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia aztertu ondoren, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: INGENIERIA, SERVICIOS Y APLICACIONES ELECTRICAS S.L. enpresari, Tximistorratzaren mantenua egitera etoritakoan agertu diren akats konpontzeko lanak esleitzea 2.314,10€ (BEZa kanpo) diru-kopuruan, 1.0000.682.153.30.01 kontu sailaren kontura “Zerbitzu inbertsioak: Elizak tximistorratza”.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Erabaki honen berri INGENIERIA, SERVICOS Y APLICACIONES ELECTRICAS S.L. enpresari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO ZABALETA PARKEAN KOKATZEKO MOBIL HOME BAT EROSTEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA

ESPEDIENTEA: 2/2023

Xedea: LARRAULGO ZABALETA PARKEAN KOKATZEKO MOBIL HOME BAT HORNITZEA

Kontratazio Mahaiak 2023ko azaroaren 13an egindako proposamena aztertu da eta zuzena dela iritzi zaio.

Kontu-hartzaitzaren gastu-konpromisoa fiskalizatzearen aldeko txostena, 2023ko urriaren 10ekoa, aztertu da.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU:

LEHENA: "LARRAULGO ZABALETA PARKEAN KOKATZEKO MOBIL HOME BAT HORNITZEKO" kontratua ondorengo enpresa honi esleitzea, SPKLren 159.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako zenbateko honekin:

ENPRESA: BURCAPE HOUSE, S.L.U.

ESLEIPENAREN ZENBATEKOA (BEZ KANPO): 35.365,00euro.

MOTIBAZIOA ESLEIPENA: Aurkeztutako enpresa bakarrak Larraulgo Udalak eskatutako baldintza guztiak betetzen ditu.

BURUTZEKO EPEA: HILABETE.


BIGARRENA: 42.791,65 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa 1 0000.623.327.00.02 " Parke Zaharrear herritarrentzat etxola" kontu sailaren kontura egitea.

Ordainketa bi zatitan egingo da:

1. %30a kontratua sinatzerakoan
2. % 70a etxola ekartzean.

ZAZPIGARREN PUNTUA

Y.R. ANDREAK EGINIKO EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAREN AZTERKETA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Y.R.M. andreak eginiko eskaera, non 2023/2024 ikasturtean Euskarako C1 maila prestatu nahi duela, autoikaskuntza bidez, Andoaingo AEK euskaltegian, klaseen kostu osoa 819,00 euro dira. Horregatik Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Y.R.M. andreak eginiko eskaera onartu, hau da, Andoaingo AEK euskaltegian, autoikaskuntza bidez, burutuko duen Euskarako C1 maila lortzeko ikastarorako diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzia ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:

- % 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.
- %50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Y.R.M. andreari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA


AIZTONDO KLASIKA BATZORDEA ETA ADUNA, ALKIZA, ASTEASU, LARRAUL, VILLABONA-AMASA ETA ZIZURKILGO UDALEN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, AIZTONDO KLASIKA TXIRRINDULARITZA PROBA ANTOLATZEKO

Ikusirik Aiztondo Klasiko batzordeak igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Aduna, Alkiza, Larraul, Asteasu, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo Udalek onartu dezaten, non Aiztondo Eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatzea arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena sei urteetarako iraupena izango duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Aiztondo Klasika batzordea eta Aduna, Alkiza, Larraul, Asteasu, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo udalen arteko hitzarmena onestea, non Aiztondo eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatuko den.

BIGARRENA: Maite Arana Perez Alkate-Lehendakari andreari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Aiztondo Klasika batzordeari eta Aduna, Alkiza, Asteasu, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo udalei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

DIRULAGUNTZA ESKAERA EGITEA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILBURUAREN AZAROAREN 14KO AGINDUAREN BABESEAN. AGINDU HORREN BIDEZ, IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ESTRATEGIA EZARTZEKO, IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN PLAN INEGRALEN BIDEZ, ETA BERTAN AURREIKUSITAKO JARDUERAK BURUTZEKO, TOKI-ERAKUNDEEI EMATEN ZAIZKIEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DIRA

Ikusirik 2023ko azaroaren 14ko agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, non, Irisgarritasun Unibertsaleko Plan integralen bidez irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia ezartzeko eta bertan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko toki-erakundeentzako dirulaguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten den.


Ikusirik, Larraulgo Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, "Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea" eta izeneko proiektua aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- "Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea" izeneko proiektua gauzatzeko, eta "Larraulgo udaleko Irisgarritasun plana" egiteko, egin behar diren kudeaketak eta lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2023ko azaroaren 14ko agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, non, Irisgarritasun Unibertsaleko Plan integralen bidez irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia ezartzeko eta bertan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko toki-erakundeentzako dirulaguntzaren babesean.

BIGARRENA.-" Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea" eta "Irisgarritasun unibertsaleko Plan integrala" izeneko proiektua aurrera eramateko onspena ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- “Irisgarritasun unibertsaleko Plan integrala” egiteko onespena ematea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

10.1.TOLOSALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA

Ikusita Amagoia Eskudero Larrañaga andreak, Tolosaldeko Mugimendu Feministen izenean aurkezturiko Mozioa, non ondorengoa dioen:

“Euskal Herriko Mugimendu Feminista aspalditik salatzen ari zena azkartu zuen pandemiak, eta zaintza krisia azaleratu eta azkartu egin zen urte horietan. Egoera ikusita, Denon Bizitzak Erdigunean plataformak zaintza sistema iraultzeko prozesua abiatu zuen 2022 urtean, eta 2023ko azaroaren 30ean graba feminista orokorra egitea erabaki dugu zaintza eskubide kolektiboan alde.

Testuinguru horretan, Larraulgo Udalari eskatu nahi diogu 2024. Urterako aurrekontu sailetan onar dezala konpromiso hau betetzeko behar den diru partida, eta egikaritu dezala honako eskaera hau:

1.-Larraulgo zaintza sistemaren diagnostiko erreala eta osatua egitea, eta horri erantzungo dion zaintza plan feminista eta integral bat osatzea urtebeteko epean.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZAN DU:

LEHENA: Amagoia Eskudero andreak, Tolosaldeko Mugimendu Feministaren izenean aurkezturiko Mozioa ez onartzea, Larraulgo udalak, gizarte-zerbitzuak Aiztondoren bidez mankomunatuta dituenek, mankomunitate horri eskatu beharko zaizkiolako burutu ditzan eskatutako proposamenak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Tolosaldeko Mugimendu Feministari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

12.27 minutu direnean, Jose Antonio Rodriguez Rodriguez zinegotzia bertaratzen da udalbatza honetara.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

11.1. EUDEL-en ADIERAZPENA 2023KO AZAROAREN 25ERAKO, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA

Ondoren 2023ko azaroaren 25erako emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta, Eudel-en adierazpena aurkezten da, non ondorengo dioen:

“AZAROAREN 25erako EUDEL-en 2023ko ADIERAZPEN EREDUA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezinena eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskek eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerek ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartzeko goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonen eta emakumeen harreman horietan duten rolaen irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larriek eraso sexualetara eta fisikoetara eramaten dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira. Hori dela eta Larraulgo Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- *Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia eratzea/hobetzea/indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarriz.*
- *Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez.*
- *Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea/ezartzea/eta ebaluatzea*
- *Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garatea/hobetzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharrari buruzkoak.*
- *Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.*

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:


- *Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak*
- *Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gainditzeko estrategiak lantzeko.*
- *Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.*
- *Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.*

Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, haien udalerrietan deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten."

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZAN DU:

BAKARRA: 2023ko azaroaren 25erako emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta, Eudel-ek aurkezturiko adierazpena bere osotasunean onartzen du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

11.2. EUSKAL ZAINITZA-SISTEMA INDARTSU, ERALDATZAILE, FEMINISTA ETA KOMUNITARIOAREN ALDEKO MOZIOA

Ikusita, PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNV udal taldeek aurkezturiko mozioa, Euskal Zaintza-sistema indartsu, eraldatzaile, feminista eta komunitarioaren alde, non ondorengoa dioen:

“Moción en defensa de un sistema de cuidados vasco fuerte, transformador, feminista y comunitario.

Por primera vez en la historia se celebró el pasado 29 de octubre el día internacional de los cuidados y del apoyo, y en este contexto son muchas las iniciativas que se han organizado en Euskadi para reivindicar un nuevo modelo de cuidados. La calidad y la solidez del sistema de salud y de los servicios sociales vascos han sido clave en la lucha contra la pandemia del Covid; y ahora es tiempo de acordar un nuevo pacto social y político para continuar transformando nuestro modelo de cuidados desde el liderazgo y responsabilidad pública en colaboración con el sector y los principales agentes, y entidades sociales involucrados.

Asimismo, como sociedad, debemos de apostar por un cambio de modelo que rompa los roles y estereotipos basados en el género,

Hoy en Gipuzkoa uno de cada cuatro personas (22,9%) tiene 65 o más años. La longevidad de la sociedad guipuzcoana es uno de los principales desafíos del momento actual, del que se deriva la necesidad de promover un envejecimiento activo y saludable; y también de adoptar estrategias ante el aumento de situaciones de dependencia y de exclusión que sufren las personas mayores.

En este contexto los Larrauldarras debemos ser agentes comprometidos del cambio hacia una sociedad de valores, asentada en los principios comunitarios, y contribuir a ser parte activa en la transformación y puesta en marcha de un modelo de cuidados referencial en el que el cuidado sea un derecho universal, y la persona, eje central del nuevo modelo de bienestar social.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Larraul se compromete a participar en el nuevo pacto social por los cuidados de Euskadi, y defender un sistema de cuidados fuerte, transformador, comunitario y feminista. Y para ello nos comprometemos a desarrollar los siguientes ejes estratégicos:

- 1. La persona eje del nuevo modelo de cuidados. Garantizar el derecho subjetivo a una atención personalizada, universal y de calidad.***



LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

2. **Profesionalización de los cuidados.** Consolidar y mejorar las condiciones de trabajo del personal dedicado a los cuidados, formal e informal, mediante el diálogo social y el fortalecimiento del sistema de ayudas.
3. **Un sistema que prioriza el cuidado en casa.** Ocho de cada diez personas mayores quieren seguir viviendo en su casa. Por ello, sin perder de vista la perspectiva de género, es preciso mejorar e innovar en los cuidados en el hogar profesionalizando el cuidado, en el apoyo a la familia cuidadora y en la participación de la comunidad,
4. **Sistema justo e igualitario.** La responsabilidad de los cuidados ha recaído históricamente en las mujeres y es por ello que consideramos necesario trabajar, desde el feminismo comprometido e igualitario, en favor de un cambio de modelo social que incorpore la corresponsabilidad de mujeres y hombres en los cuidados, adoptando un enfoque interseccional.
5. **Incrementar la coordinación sociosanitaria.** El sistema social y el sanitario deben cooperar más y mejor para que las personas usuarias; sean dependientes, con diversidad funcional, padezcan alguna enfermedad mental o se encuentren en situación de exclusión social, reciban una atención integral desde la administración vasca.
6. **Reforzar la comunidad.** Reforzar los lazos de comunidad como espacio de desarrollo humano sostenible, incrementando la cohesión social y la participación de entidades sociales, asociaciones y personas comprometidas con el cuidado.
7. **Garantizar la sostenibilidad y la calidad de los cuidados.** Mejorar la gestión siendo más eficaces, estudiando para ello nuevos recursos económicos y adoptando nuevas medidas fiscales que garanticen la viabilidad del modelo de cuidados actual y el bienestar futuro, con un renovado compromiso intergeneracional.
8. **La gobernanza colaborativa de los cuidados.** Apostar por un modelo de cuidados público y comunitario, más justo, igualitario y corresponsable trae consigo articular nuevos mecanismos de cogobernanza: público-privado, público-público, público-comunitario. “

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

BAKARRA: PSE-EE (PSOE) eta EAJ-PNV udal taldeek aurkezturiko mozioa, hau da, Euskal Zaintza-sistema indartsu, eraldatzaile, feminista eta komunitarioaren aldeko mozioa bere osotasunean onartzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalbatza hau bukatu aurretik, Alkate andreak bertaratuei ondorengo hiru puntu hauen berri ematen die:

- 1.-Plan orokorraren idazketarekin jarraitzeko, Alkateak azaltzen du dagokion kontratua sinatu dela, eta abenduaren 14an Herri bilera bat egingo dela, herritarrei Plan orokorraren idazketarako talde berria aurkeztuaz eta Plan orokorrari buruzko azken berriak emanaz.
- 2.-2024ko udal aurrekontua, abenduan prestatuko dela.
- 3.-Herriaren promoziorako bideoa bukatu dela eta batzarkideei erakusten zaie.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 13:28 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

